



Ivan Gimenez

◆ KAZETARIA

1936ko gerrarik gabe, Ehun urte bakardadean ez?

Ez DUT INOIZ *Ehun urte bakardadean* berriro irakurriko. Zoriontsua izan zareneko lekuetara ez baduzu itzuli behar, orduan, Macondora ez naiz berriro hurbilduko. Hobe da mitoak pertsonalki ez ezagutzea, zer gerta ere... 16 urterekin liluratu gintuzten liburuekiko harremanak ez dira berreskuratu behar. Dena den, ez ginateke berdinak izango liburu hori irakurri gabe.

Nola esan. Behin irakurrita, modu inozoagoan begiratzen dugu mundua, eta uste dut ez dela txarrrako izan. *Ehun urte bakardadean* argitaratu gabe, mundua leku grisagoa eta tristeagoa litzateke. Beraz, esan daiteke liburu horrek mundua hobetu duela, neurri apalean bada ere. Hala ere, Gabok eleberria idazteari uztear egon zen, ez omen zuelako hasiera on bat aurkitzen, pertsonaiak ez omen zitzaizkiolako burura etortzen, eta eguneko beharrak asetzeko dirurik ez zeukalako: bi seme-alabak eta emaztea, baina diru-sarrerik ez. Kotxea eta etxetresnak bahituran eman behar zituen idazteari eusteko, erlojupeko lasterketa eroan murgilduta, bere familiaren pobrezia nola larriagotzen zen ohartuz, baina bere egin-kizun madarikatu hori ezin utziz.

Bere lagunen laguntza hil ala bizikoa izan zen, literalki, eta literaturaren mesedetan. Haien artean Jomi García Ascot eta María Luisa Elio gertuenak ziren, Gaboren seme-alabez arduratzen eta García-Márquez familiari eguneko bizigaiak ematen. Jakina denez, *Ehun urte bakardadean* bikote horri eskainia dago.

María Luisa Elio izan zen eskuizkribua irakurtzen aritu zen lehen, esaldiz esaldi ia-ia. “Nahi badu-

zu, liburua zurea da”, aitortu zion Gabok. Hori dena 1965ean eta Mexikon gertatu zen, Kolonbiatik urrun, baina Iruñetik are urrunago. Iruñea? Bai, María Luisa Elio iruindarra zen, abokatu errepublikano baten alaba. 1936ko kolpe faxistaren ondorioz, bere aitak ezkutatu behar izan zuen hiru urte luzez, La Meca zahar-etxeko zoko ilun eta estu batean, armairu batean giltzapeturik. Hortik 200 metrora, goize-ro entzuten zituen fusilamenduen hotsak, Gaztelubideko harresietan.

Gerra bukatuta, familiarekin elkartu zen Parisen, eta Mexikora atzerriratu ziren, 30 urte geroago García-Márquezen auzokideak izango zirela susmatu gabe. María

Bere lagunen laguntza hil ala bizikoa izan zen, literalki, eta literaturaren mesedetan. Haien artean Jomi García Ascot eta María Luisa Elio gertuenak ziren (...). Jakina denez, “Ehun urte bakardadean” bikote honi eskainia dago

Luisa Elio neskatoak ez zuen jakiterik *Ehun urte bakardadean* gauzatzeko konplize ezinbestekoa bihurtuko zela.

Agian, emakume iruindar hura gabe –36ko kolpe faxistak atzerriraturik–, gaur ez genuke Gaboren maisulana irakurtzeko aukerarik izango.

Eta mundua okerragoa (edo gaiztoagoa) izanen litzateke. Agian. ■



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali